

Gizarteratze- eta enplegu-politiken ebaluazioa: ikuspegiak, begiradak eta esperientziak

9:00-9:30 *Irekiera*, Joxerramon Bengoetxea (UPV/EHUko Errektorea) eta Fernando Fantova (Enplegu eta Gizarteratze Politiketarako ebaluaziorako Organoaren arduraduna)

9:30-11:00 *Politika publikoen ebaluaziorako markoa, akademiatik kanpo eta akademiaren baitatik*. Juan Andrés Ligerio (Carlos III Unibertsitateko irakaslea eta UCMko Programa eta Politika Publikoen Ebaluaziorako Masterreko ko-zuzendaria). Moderatzen du: Maite Sanz (Besaldi)

11:00-11:30 Kafea

11:30-13:00 *Enplegu eta gizarteratze politiken ebaluzioaren gainean ekarpenak*. Xavier Godás (Soziologian doktorea eta politika publikoetan aholkularia) eta Raleñ Samz (SIIS – Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua). Moderatzen du: Marian Díez (Hegoako Presidentea eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua I saileko irakasle jubilatua)

13:00-14:15 Tailerra

14:15-15:15 Lunch

15:15-16:45 *Zeharkakotasuna eta interseksionalitatea enplegu eta gizarteratze politiken ebaluazioan*. Julia Espinosa Fajardo (Irakasle Titularra, Sevillako Unibertsitateko soziologia sailean) eta Sara Buesa (Gizarteratze saileko Zuzendaria Eusko Jaurlaritzan). Moderatzen du: Uxue Zugaza (Zientzia Politikoko saila, UPV/EHU)

16:45-18:15 *Enplegu eta gizarteratze politikan ebaluazioa eta partaidetza*. Alfonso López (EAPN) eta Alicia Suso (Cáritas). Moderatzen du: Igor Ahedo (EHUgune, UPV/EHU)

18:15-19:30 Itxiera tailerra eta ondorioak

Gizarteratze- eta enplegu-politiken ebaluazioa: ikuspegiak, begiradak eta esperientziak

Bilbo, urriaren 30an, Bizkaia Aretoan

Jardunaldi hau Euskal Herriko Unibertsitateak antolatu du, Besaldi-Enplegu eta gizarteratze politikak ebaluatzeko organoaren laguntzarekin, eta UPV/EHU eta Besaldiren artean epe luzera abiaraziko den lankidetza prozesu baten baitan kokatzen da. Lankidetza prozesu honen helburua enplegu eta gizarteratze politika publikoen ebaluazioaren erakundetze bidean aurrera egiteko sinergiak sortzea da. EhuGune, unibertsitatea eta gizarteraren harremanetarako zuzendaritzak, bultzatzen du.

Jardunaldi hauen bidez, unibertsitate komunitatearen eta enplegu-politiken eta gizarterako-koehesioaren ebaluazioa hobetzeko interesa duen eragile, kolektibo eta pertsona ororen arteko lankidetza bultzatu nahi da.

Jardunaldia alor akademikoko kideei eta enpleguaren eta gizarteratzearen arloetan inplikaturako komunitateari zuzenduta dago. Besteak beste, komunitate hau osatzen dute: enplegu- eta gizarteratze-politikak ebaluatzen dituzten pertsona eta erakundeak; enplegu- eta gizarteratze-politiken arloko erreferenteak; enplegu- eta gizarteratze-politikak martxan jartzen dituzten erakundeetako (izan publikoak ala ez) zuzendari edo langileak; gizarteratze- eta gizarteratze-politiketan inplikaturako kolektibo, mugimendu edo erakundeetan parte hartzen duten herritarrak; edo enplegu- eta gizarteratze-politiken hartzaileak.

Jardunaldiak komunitate honetako harreman pertsonalak sendotzea du helburu. Horregatik, aurkezpen eta mahai-inguruez gain, hausnarketarako eta elkarerraginerako saioak eta komunikaziorako espazioak proposatzen dira.

Ebaluazio prozesuen hausnarketan, formakuntzan, ikerketan eta martxan jartzean adituen parte-hartzea izango dute jardunaldi hauek. Hasiera moduan, politika publikoen ebaluaziorako esparru analitiko bat aurkeztuko da; sistemikoa, konplexua, poliedrikoa, diziplina anitzekoa eta metodologikoki plurala den ebaluaziorako hurbilketa analitiko baten erronka eta potentzialtasunak ikusarazteko. Bigarren une batean, gizarteratze eta enplegu politikak ebaluatzeko garrantzizko bi esperientzia berri aurkeztuko dira. Arratsaldeko saioari hasiera emateko, ebaluazioan generoak eta intersektionalitateak duten garrantzia azpimarratzen duen truke bat ekarriko da. Amaitzeko, gizarteratze-estrategietan inplikaturako erakundeek ekarpenak egingo dituzte.

Ikerketaren, formakuntzaren eta esku-hartzearen arloko aditu, aritu eta erreferentez gain, jardunaldian talde txikietan tailerrak eta dinamikak egiteko bi une aurreikusten

dira. Tailer horien helburua da inklusioan eta enpleguan ebaluazio-estrategiak diseinatzeko nodo nagusiak identifikatzea, bertaratutakoen begiraden aniztasuna oinarri hartuta. Azkenik, jardunaldi hauen helburua unibertsitatearen eta enplegu- eta gizarteratze-politiken ebaluazioa hobetzeko interesa duen komunitatea osatzen duten pertsonen eta kolektiboen artean harremanak eta sinergiak erraztea da. Horregatik, emaitzez gain, garrantzitsua da prozesua, kontaktua eta interakzioa. Atsedenaldira egongo den lunchak honetarako aukerak emango ditu.

60 lagunentzako lekua dago, eta matrikulan kafea eta luncha sartzen dira. Jardunaldietan bertaratzeko ezinbestekoa da tailerretan parte hartzea. Tailer hauek bazkaltzeko atsedenaldira baino lehen eta jardunaldia itxi baino lehen izango dira.

Datu garrantzitsuak:

- Eguna: 2025eko urriaren 30ean, 09:00etatik 19:30era, Bizkaia Aretoan
- Edukiera: 60 pertsona. Unibertsitateko langileen, teknikarien eta gizarte-erakundearen arteko oreka bilatzen saiatuko gara.
- Matrikularen prezioa: 30 euro